

**OLERKIAK**

**JOSU BAEZEN OLERKIAK**

**Promesa**

Beti dago esatekorik:  
erromesak iritsi dira,  
amaitzear dute ibilaldia.  
Atzean utzi dute  
harresiak mugatutakoa,  
eta lotuta daudenen garrasiak  
aipatzen dituzte.

Beti dago esatekorik,  
asko gustatzen da  
itzal sakonetik ihes egitea  
eta eztizko eskaintza  
gizaki askearen alde  
pausatzen uztea.

Beti dago esatekorik,  
zeharkatutako zenbait eremutan  
eguzkiaren printzek,  
zuzenki,

zuzenean,  
lurra jotzen dutenean.

Beti dago esatekorik,  
erreka bazterreko  
haltz hostoen geruza lodiaren itzala  
bilatzen denean,  
edo iturri inguruko hezea  
adiskide on gertatzen denean.

Beti dago esatekorik:  
ur mantsoen onura,  
ur bortitzaren asaldatze,  
urruneko hodeiertza  
gandu artean galdurik.

Erromes nekatua naiz,  
ontasunaren gailurra ospatzen dut.

Amets zoragarrienaren ontzian,  
zakuan  
erortzearen inpresioa,  
guztia,  
munduaren erdiari  
eskaini nahi diot,  
nahiz eta beste erdiak  
ezer ez jakin.

## Epilogoa

Irakur ipuinak niri,  
ez dut besterik nahi.

Ederra eta ez hain ederra izan dena,  
xamurragoa dadin ondorengoan,  
ni ezagutu nauenaren ondorenean.

Irakurri ipuinak niri.

Handia izan zara, bizitza, handia.  
Sortu nintzenetik handia.  
Hobekuntzaren ahalmenak  
garatu dezala  
izatearen lohi zulo  
izan dudana.

Irakurri ipuinak niri,  
entzule natzaizue, irakurri.

Zuek, badakizue nortzuk  
eta badakizue zenbait.

Irakurri niri ipuinak.

Gizaki pentsatzaile,  
abere berezia,  
naturaren seme partikularra,  
hilkorra izatea naturala den bezalaxe,  
aurre-iritziak saihestu

eta amaren altzoan jaso nituen bezalaxe,  
errezitatu ipuinak.

Entzun nahi ditut  
izara zuriaren gainean so.

Entzule natzaizueke,eta  
ahal baldin badut  
nire begitarteko irribarrea  
eskainiko dizuet.

## Down

Zuka ari natzaizu,  
usain epela nabari dezazun  
ia zentzumen bakarra  
geratzen zaizun honetan.

Hemen dirauzu,  
xalotasunaren bilakaera soilik  
ezagutu duzun horrek.

Hemen dirauzu,  
zabarkeriaren ezaguera ezak sortutako  
emozio alaietan murgildurik.

Hemen dirauzu,  
bihotzaren bideari soilik jarraiki.  
Hemen dirauzu,  
etsi oneko gizakiaren  
ikono osasuntsua.

Sortu zintuen  
ama apalak  
sendian maitasunaren lurruna  
txertatu zenuela zioen.

Ume honen egunsentiek  
ezabaezinezko ONTASUN hitza  
islatzen dute,  
zioen aitak.

Mundutarren maltzurkeriak  
menderatu ez zaituen  
ispilu enbidiagarria.

Zure esku barru zimurretan  
begiratzen duzu sarritan  
eta badirudi hor ikusten duzula  
bihotz amultsuaren marrazkia,  
zure jokabidearen funtsa.

Mitxoleta gorria,  
mitxoleta zara  
belardiaren erdian.

Sagastiko arima bakar miresgarria.

## Izana-izena

Izanaren mirak  
oraindik erasotzen du:  
sasoiak,  
proiektu ohiak,  
amodioa,  
gorputz harmoniatsua.

Geroaren ikuskerak  
pizten ditu begiak.

Egin duzuna izan daiteke  
geroko jolasa,  
optimista janzkia soinean.

Geroa da.  
Orain geroa da  
eta izkutuan nabil  
zimurtzen hasitako  
gorputzean bildurik.

Ximeltzen hasi diren begien distirak  
behin eta berriz dio:  
zertarako deitu erantzuten ez duen iraganari?

Optimista izatearen gordina,  
gizarte loraturen esperantzan omen.

Hala eta guztiz ere,  
izanaren mirak

erasotzen du.

Izanaren espazioan  
labirinto nahasi bat ikusten da  
eta nahasmen horretan  
ezetsita gertatzen gara.

Iragan desagertuan  
naturari itsatsia gelditu nintzen,  
haitzuri artean jaiotzen den  
nere oroitzapeneko *Iturria* izenari atxikita.



## Arrats zurietan

Estalki zuriz jantzitako  
izadi emankorra.

Bakardadean,  
isiltasun zuria  
eta pentsamendu sosegatuak  
partekatu ditugu.

Arrats zurietan,  
laino maxkalak hodeiertzean,  
giza lurrina aurrean.

Arrats zurietan,  
kaxkabeltz urduria  
doinu motzetan  
hegoak astintzen,  
urritzaren babesean.

Bestela izan zedin  
hainbestetan ahalegindu naizen giza eremuan,  
desanparatuen ahots sakabanatuak  
ugaltzen ari dira.

Arrats zurietan,  
errekaren beste aldean  
lumadi deigarria:  
hegeberak, motots beltz dotorez jantziak.

Hotzetako bidaiari xamurrak.

Arrats zurietan,  
beltza da itsasoa  
eta lerrokatze behartuetan dirauen desanpara-  
tuak,  
mutilatutako gizarte honen lotsa-ezetan  
murgildurik,  
bakarturik jarraitzen du.

Iluntzeko bakardadean  
izadi isila  
eta zuriaren gainean  
doazenen oinatz izoztuak,  
ilargi beteak islatuak.

Haize hezearen brisa aurpegian,  
berriro elurra hasi du.

## Egunsenti berri

Ekialdetik azaldu da eguzkia,  
itzal guztiak gaindituta.

Ur-hotsak kolorea hartu du,  
espaloiak,  
bideak  
gorpuztu egin dira.  
Egunsenti berria.

Egunsenti berriak  
agur beroak eskaintzen dizkio  
doanari,  
datorrenari.

Egunsenti berrian  
portura iritsiko da  
ontzi betea,  
eta girlandaz apaindutako  
inguru irrikatsuetan,  
argiz mozkor,  
ospatze hotsak  
izango dira.

Egunsenti berrian,  
lo gozotik esnatutako  
bihotz ameslariak,  
laino zuriak biribilka,  
diosal hunkigarrietan zoro  
ikusiko ditu.

Noizbait,  
hotsandiko egunsentia  
gertatuko da,  
gizatxarrak zapuztutakoen artean txertaturik.

Noizbait,  
munduko lurrazalean.

## **Begirada luzeak**

Bakardade handiengan arnaslarri,  
isiltasun izugarria lagun.

Memento batean,  
zorionaren ispilatze bat bailitzan,  
leihoak disdiratsu  
urrezko  
bihurtu ziren.

Sortaldeko eguzkiaren lehen printzak aitzakia.

Begirada luzeak  
hodeiartza harrapatu zuen  
eta guztiak  
lur emankorra zirudien,  
manipulatu gabea.

Naturaren maizter  
sentitu nintzen behingoz

## Arrats gorrietan

Arrats gorrietan  
jolas hotsak entzuten dira,  
pozezko zalapartak  
atari inguruetan.

Haur hizkuntzaren distirak  
xurgatutako atmosfera askatzailea.

Arrats gorrietan,  
euri tantanek  
kilikatzen ninduten;  
leiho ondoan  
xuxurlatze hotsa  
hurrengo jolasaren asmakizunetan.

Arrats gorrietan,  
haurra izaten ikasi nuen.

Arrats gorriak:  
lehortutako osinetan,  
hozkirri diseatuak.

Zintzilik dirau  
egurrezko uztai lotsatiak,  
pipi begiz so eginez,  
lekukoaren zain.

## Logabeko gauak

Logabeko gauetan,  
hilkorren pauso hotsak  
apaltzen dira  
eta kanpaiek  
isiltasuna agurtzen dute.

Logabeko gauetan  
sekretuak berrikusten dira.

Egunen batean  
ezezagunen artean  
esango genituenak  
marrazten ditugu  
sabaiaaren geometrian.

Logabeko gauetan  
erreinu bat sortzen da.  
Logabeko gaua,  
pozaren eta atsekabearen estalpe  
bilakatzen da.

Norbera denaren,  
nolakoa denaren,  
parodia imaginarioan  
gizon pentsakorren txanda  
gertatzen da..  
Benetan hitz egiten dute ezezagunek.

Logabeko gauetan,

inor, bazara.

Ez dakit ordea,  
inori axolarik dion.

Bart, ez dut txintik aditu.

## **Atsedenaldia**

Nire parajera iristeko  
harkaitz tartetako  
bidezidor bihurriak igaro behar dira.

Arbola hostotsuen itzaletan  
errekan gora joan.

Baserri zurixken  
atari aurretan diosal,  
usoaren hegaldi uhindunaren  
norabidea jarrai.

Nire parajera iristeko  
ez presaka ibili.

Gaurko ideien mundua,  
mundu aurrerakoia,  
edozeri aurre hartu nahi diozun  
mundu aurrerakoia,  
ez presaka ibili.

Argi izpi ikus ezinak  
bakardadearen sakontasunean  
irauten du,  
eta nire parajera iristeko  
isiltasun handiz narama,  
nire izpiritua gidatuz.

Sentimenduek bultzatuta,  
aitzakiarik pilatu gabe  
nire parajera iristeko  
irribarre sanoenak  
bideratzen nau  
bidezidor bihurrietan.

Urteen joanak  
eragin suntsitzailea islatzen du  
harkaitz higatuetan.

Soilgune zerutiarrean  
egingo dut  
argi urratzea.

Nire parajea.



## Burkoa

Amets zoroenak ezagutzen ditu  
nire burkoak.

Jakiunde haundiko  
lagun mina da.

Hitz egingo balu  
ideia nahasiak,  
ulergaitzak,  
adieraziko lituzke.

Beti ere nire komenientziara,  
lagun fina.

Animalia ezezagunak  
marrztuko lituzke,  
suge munstro hegalariak,  
animalia fantastikoak.

Hitz egingo balu,  
nire burkoak  
hitz egingo balu,  
ezkutuko pasarteaz mintzatzen garela  
esango luke  
eta konjuru haundienek  
sortzen dituzten dardarizoek  
esnatzen nautela  
zenbait pasadizotan.

Gaur, burko azal berria  
jarriko dizut  
ea iturri ezkutuetarako bidaia  
egokitzen zaigun.

## Kimuak

Bizitzaren usainak irauten duen bitartean  
kimu berriak mintzo dira,  
eta ez hain berriak.

Badakit,  
haize hotzarekin borrokan  
nahiz eta sufritu,  
loratu egingo direla  
bizitzaren usaina akuilu.

Gure iragana gogoratuko digute,  
tristura, hilkorra balitz bezala.

Atzean utzitakoaz damurik gabe,  
bizitzako usainak irauten duen bitartean,  
pozaren kimu berriak loratuko dira.

Badakidalako  
ez tristura  
ez eta ere poza  
ez direla hilkorrak.

## Ohiturak

Bidegurutzera iristerakoan  
zalantzazko jokabide nahasiak  
kilikatzen nau.

Haizeak lainoak mugitzen dituen eran gertat-  
zeak  
iratzarri egiten nau.

Laino nabigatzaile sotila bihurtu.

Lauhazkan ala mantso,  
kulunkan ala finko,  
mugimendu berritzaileak amets.

Argiaren itzaltze eta piztearen tika eskuratzea  
ez da derrigorrezkoa.

Esker oneko keinu bat  
zuzentzen diot bizitzari  
egunerokotasuna hautsi zen unea  
ospatu nahian.

*Josu Baez*